

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bilkuraren akta

Ohiko bilkura

Data: 2021eko martxoaren 10a, asteazkena.

2021eko apirilaren 14ko bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletzeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: ez dago.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bilkuran izan da, idazkari gisa.

Saioa alde zuzenetik eta arauzko publikizitatearekin deitu da, eta honako hau izan da gai-zerrenda:

Gai-zerrenda

1. Onestea 2021eko otsailaren 10eko aurreko ohiko bilkurako akta egindako oharrekin.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea**
 - 3.1. San Prudentzio jaia ospatzeari buruzko erabakia.
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea**
5. **Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea**
 - 5.1. Emakumeen Nazioarteko Egunagatik M8ko erakunde-adierazpena. Zaintzak Berdintasunean. Emakumeen zeregina pandemian eta zaintzaren munduko krisia.
6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea**
 - 6.1. Kontratatzeko erakundearen kontratazio-mahai egonkorak.
 - 6.2. 2020 ekitaldiko aurrekontu orokorraren likidazioa eta kreditu txertaketaren espedienteak.
 - 6.3. 2021 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorra hasiera batean onestea.
 - 6.4. Daniel Salvadorren mozioa Arabako Errioxako Kuadrillaren izena aldatzeari buruzkoa.

Azken puntua) Galde-eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta gai-zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira.

1. Onestea 2021eko otsailaren 10eko aurreko ohiko bilkurako akta.

Alkate-udalburu jaunak zinegotziak aktari oharrak egitera gonbidatu ditu.

Ez da oharrik egin.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2021eko otsailaren 10eko aurreko ohiko bilkurako akta egindako oharrekin.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkariak, alkate-udalburuak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenen berri: 16/2021 eta 38/2021 bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

3. Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea

3.1 San Prudentzio jaiak ospatzeari buruzko erabakia.

Aurrekariak:

- 1) San Prudentzioko jaiak gure herrian danborrada eta karakolekin ospatzen dira. Jai horietan gure kale, plaza, taberna eta txokoetan ehunka pertsona batzen dira eta jende-pilaketak gerta daitezke.
- 2) Alkatetzaren proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) San Prudentzio dela-eta ospatzen diren ekintzak bertan behera uztea.
- 2) Herritarrek ulertzeko eta arduraz jokatzeko eskatzea.
- 3) Jakinaraztea Udalak pandemiaren egoeratik ez duela apirilaren 27tik maiatzaren 2ra aurreikusitako ekintzarik antolatuko, finantzatuko, ez eta babestuko ere.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea

5. Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea

5.1. Emakumeen Nazioarteko Egunagatik M8ko erakunde adierazpena. Zaintzak Berdintasunean. Emakumeen zeregina pandemian eta zaintzaren munduko krisia.

Eslava Guillerna andreak transkribatzen den adierazpena gaztelaniaz eta euskaraz irakurri du.

Declaración con motivo del 8 de marzo 2021, cuidados en igualdad. El papel de las mujeres durante la Pandemia y la Crisis Global de los cuidados.

Vivimos una crisis multidimensional, sistémica, que se cruza e interrelaciona con otras crisis que ya venían de antes, como la ecológica y de cuidados. La pandemia ha puesto en evidencia reivindicaciones que desde el movimiento feminista y los colectivos de mujeres se venían haciendo: la vida humana es vulnerable y profundamente dependiente del entorno humano, medioambiental y comunitario. Nada debe ser más importante que el cuidado de la vida, una vida que se ha precarizado y debilitado al extremo con la pandemia.

Hoy 8 de marzo, en el día internacional de las Mujeres, en este año marcado por la pandemia y su gestión, corresponde hacer un reconocimiento a la aportación de las mujeres a la lucha para combatir la pandemia y sus consecuencias en todo el mundo. La provisión de los cuidados ha recaído en las mujeres, tanto en los servicios públicos (sanidad, educación, servicios sociales,

comercio y alimentación,) como en el interior de las casas, siendo ellas las que se han cargado mayoritariamente de muchos de los servicios que han resultado esenciales en esta crisis sanitaria y social. Incluso el reparto entre las mujeres se da de forma desequilibrada, por clase social, por racialización y estatus migratorio. Por si fuera poco, en la mayoría de los casos se trata de trabajos en condiciones precarias

Este desigual reparto, además de la sobrecarga y sus consecuencias sobre la salud y calidad de vida de las mujeres, también ha desvelado la debilidad del sistema de cuidados, profundizando en las desigualdades que ya venían existiendo. Nuestro modelo social hace recaer la mayor parte de los cuidados en el ámbito familiar y de forma desproporcionada sobre las mujeres, tanto los no remunerados como los remunerados, siendo minoría los que se atienden en lo público. Asimismo, las mujeres en peor situación y posición (las cabezas de familias monoparentales, las más pobres, las de colectivos vulnerables, las víctimas de violencia machista...) sufren en mayor medida los negativos efectos de la provisión de los cuidados.

Por tanto, el reconocimiento social debe expresarse en forma de un férreo compromiso público para combatir las brechas de género que sostienen este reparto desigual e injusto. Unas desigualdades que se manifiestan en la precariedad de las condiciones del trabajo que desempeñan las mujeres en los servicios esenciales. Es tiempo de poner en su justo valor todos los trabajos de cuidado y avanzar hacia un modelo más corresponsable que genere más equidad y bienestar entre todas las personas.

Los Ayuntamientos, que somos los que estamos en primera línea para combatir la pandemia y sus consecuencias sobre las personas y comunidades, debemos liderar el impulso de las políticas públicas sobre los cuidados y su provisión, desde la corresponsabilidad pública y atendiendo a las diferentes condiciones e impactos en hombres y mujeres.

Las instituciones tenemos que seguir coordinadas y abrir vías para una efectiva y real participación de la ciudadanía en las decisiones públicas, en particular de los colectivos diversos de mujeres y del movimiento feminista.

Por todo ello, este Ayuntamiento, en el marco de sus competencias, se compromete a:

- Impulsar/liderar el debate sobre el modelo de organización social de los cuidados desde un enfoque feminista basado en la centralidad de la vida y la corresponsabilidad social y comunitaria en el cuidado.
- Analizar con enfoque de género la situación y necesidades de los colectivos más vulnerables y los efectos de la COVID-19, y poner en marcha medidas urgentes para hacerles frente.
- Garantizar la incorporación del enfoque de género en todas las medidas que se aprueben para paliar los efectos de la crisis del COVID en materia de ayudas y programas de apoyo.
- Estudiar y articular soluciones viables para los servicios locales de apoyo al cuidado de menores y personas dependientes, procurando y/o facilitando el cuidado en condiciones dignas y justas, para quien lo da, y para quien lo recibe.
- Incidir en los Planes de Igualdad municipales de manera expresa, en el empoderamiento de las mujeres, la puesta en valor de los cuidados y la corresponsabilidad de los hombres en los mismos.
- Reforzar y preservar el personal y recursos técnicos y económicos para el desarrollo de las políticas locales de igualdad y de la transversalización de género en todas las políticas locales.
- Apoyar a las redes comunitarias de cuidados a nivel local.

2021eko martxoaren 8a dela-eta adierazpen-eredua, zaintza berdintasunean. Emakumeen egitekoa Pandemiaren eta zaintzaren Krisi Globalean.

Dimentsio askoko krisi sistemikoan gaude, zeina gurutzatu eta erlazionatu egiten baita aurretik zeuden beste krisi batzuekin; esaterako, ekologikoa eta zaintza-arlokoa. Pandemiak agerian utzi ditu mugimendu feminista eta emakumeen kolektiboak egiten ari ziren zenbait aldarrikapen: giza bizitza zaurgarria da, eta giza ingurunearen, ingurumenaren eta ingurune komunitarioaren zeharo mendekoa. Ezerk ez du garrantzi handiagoa izan behar bizitza zaintzeak baino, pandemia dela-eta muturreraino prekario bihurtu eta ahuldu den bizitza.

Gaur, martxoak 8, Emakumeen nazioarteko egunean, pandemiak eta haren kudeaketak baldintzatutako urte honetan, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemia eta beraren ondorioak borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena. Zaintzaren ardura emakumeei egokitu zaie, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta elikadura...) bai etxeen barruan, eta batez ere haiek eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Emakumeen artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migrazio-estatusaren arabera. Gainera, kasurik gehienetan egoera prekarioan egindako lanak dira.

Berdintasunik gabeko banaketa horrek, gaitzgarriak gain, eta hark emakumeen osasunari eta bizikaltateari dakartzkien ondorioez gain, zaintza-sistemaren prekaritatea ere azaleratu du, eta lehendik ere bazeuden desberdintasunak areagotu ditu. Gure gizarte-ereduak familiaren, eta, neurritz kanpoko proportzioan, emakumeen esku uzten ditu zaintza gehienak, bai ordainpekoak bai ordaingabeak; oso gutxi ematen dira eremu publikoan. Bestalde, egoera eta estatus okerreko emakumeek (guraso bakarreko familien buruak, behartsuenak, kolektibo zaurgarrietakoak, indarkeria matxistaren biktimak...) neurri handiagoan jasaten dituzte zaintza-zamaren ondorio negatiboak.

Ondorioz, gizarteak bere aitortzea adierazteko moduak konpromiso irmoa izan behar du, berdintasunik gabeko banaketa bidegabe horri euskarria ematen dioten genero-arrakalak borrokatzeko konpromisoa. Desberdintasun horiek agerikoak dira emakumeek funtsezko zerbitzuetan egiten duten lanaren baldintzen prekaritateari begiratu gero. Bada garaia zaintza-lan guztiei dagokien balioa emateko, eta aurrera egiteko erantzunkidetasun handiagoko eredu baterantz, pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortzeko.

Udalak gaude lehen lerroan, pandemiari eta hark pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten, eta liderrak izan behar dugu zaintzari eta haren hornikuntzari buruzko politika publikoak bultzatzeko orduan, erantzunkidetasun publikotik abiatuta, eta arreta emanez gizon eta emakumeen baldintza eta inpaktu desberdinei.

Erakundeok koordinatuta egoten jarraitu behar dugu, eta bideak zabaldu behar ditugu herritarrek, eta bereziki mota askotako emakumeen kolektiboek eta mugimendu feministak, benetan eta modu eraginkorrean parte har dezaten erabaki publikoetan.

Horregatik guztiagatik, Udal honek, bere eskumenen esparruaren barruan, honako konpromisoak hartzen ditu:

- Gizartean zaintza antolatzeako ereduari buruzko eztabaida bultzatzea eta eztabaida horretan buru izatea, bizitza erdigunean jartzean oinarritzen den ikuspuntu feminista batetik abiatuta, zaintzaren erantzunkidetasun sozial eta komunitarioaren bidean.
- Analisia egitea, genero-ikuspuntutik, kolektibo zaurgarriaren egoerari eta beharrezkoak buruz, baita COVID-19aren ondorioei buruz ere, eta horiei aurre egiteko premiazko neurriak martxan jartzea.
- COVIDaren krisiaren eragina arintzeko onartzen diren neurri guztietan genero-ikuspuntua gehitzen dela bermatzea, laguntzez eta babes-programez den bezainbatean.
- Konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea adingabekoen eta mendekotasuna dutenen zaintzari laguntzeko tokiko zerbitzuentzat, zaintza baldintza duin eta bidezkoetan egin dadin saiaturik edo/eta erraztuz, bai ematen duenarentzat bai jasotzen duenarentzat ere.

- Udalen Berdintasun-plangintzetan, espresuki azpimarratzea emakumeen ahalduntzea, zaintzaren balioa, eta hari dagokionez gizonen duten erantzunkidetasuna.
- Berdintasuneko tokiko politikak garatzeko eta generoa tokiko politika guztietan zeharlerroa izateko erabiltzen diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak sendotzea eta babestea.
- Tokiko zaintza-sare komunitarioei babesa ematea.

Gamarra López Brea jn. (PSE-EE PSOE): Garrantzitsuena kontzientziazioa da, eta aldarrikapenek eta jaiek jendea kontzientziazatzen dute.

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Aukera dagoenean, pandemiak ahalbidetzen duenean, Udala bete-betean sar dadila gai horretan.

Alkate jaunak talde guztiak gonbidatzen ditu bozkatzera eta denak ados badaude, Udalbatzaren beraren adierazpen gisa hartuko da.

Bozkatu egin da Emakumeen Nazioarteko Egunagatik M8ko erakunde-adierazpena. Zaintzak Berdintasunean. Emakumeen zeregina pandemian eta zaintzaren munduko krisia.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Belouqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Emakumeen Nazioarteko Egunagatik M8ko erakunde-adierazpena. Zaintzak Berdintasunean. Emakumeen zeregina pandemian eta zaintzaren munduko krisia udalbatzaren beraren adierazpen gisa hartu da.

6.1. Kontratatzeko erakundearen kontratazio-mahai egonkorrak

Aurrekariak:

1. 2019ko uztailaren 8ko saioan hartutako erabakia.
2. 2020ko maiatzaren 20ko bilkuran prozedura ireki, mugatu eta negoziatuaren bidez zerbitzuak kontratatzeko administrazio klausula partikularren agiriaren hogeita batgarren klausula. Honako hau dio:
Hogeita batgarren klausula: Kontratazio-mahaia 3 (hiru) kidek osatuko dute eta mahaiburua Udalbatzako kidea edo bertako funtzionarioa izango da, eta honakoak horren parte izango dira kide gisa: Idazkaritza-Kontu-hartzailetzako titularra (aholkularitza juridikoko eta ekonomia-aurrekontu kontroleko esleitutako funtzioak izateagatik), karrerako funtzionarioen eta Udalbatzaren zerbitzura langile finko direnen artean kontratazio-organoak esleitzen dituen beste batzuk. Mahaikideen kopurua, denak kide dira, ez da hiru baino gutxiago izango.
Udalbatzaren hautatutako kide bat soilik izan daiteke kontratazio-mahaikidea.
Ezin izango da mahaiaren parte izan lantzen ari diren kontratuaren dokumentazio teknikoa egin duen langilea. Mahaiko idazkari-lana egiten duen kidea Udalbatzako funtzionarioa izango da.
3. 2019ko uztailaren 8ko saioan hartutako erabakia
4. 2021eko martxoaren 3ko Ekonomia Informazio Batzordearen saioan egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea kontratazio-organo gisa bilkuraren kontratazio-mahaiaren eraketa.
- 2) Kontratazio-mahaia 3 (hiru) kidek osatuko dute:
 - I. Mahaiburua: Eduardo Terroba Cabezón. Mahaiburuordea: José Antonio Tarragona Elejalde Obra eta Zerbitzu Batzordeko zinegotzi-burua.
 - II. Alfredo S. Sastre de Abajo. Idazkaritza-Kontu-hartzaitzaren kide titularra. Idazkaritza-Kontu-hartzaitzaren ordezkari kidea: María Jesús Mansilla Delgado, Udalbatzako karrerako funtzionarioa.
 - III. Kontratazio-mahaiaren Idazkaritza titularra den kidea: María Jesús Mansilla Delgado, Udalbatzako karrerako funtzionarioa. Kontratazio-mahaiko idazkari-ordezkaria: Sara Martínez Gallego, Udalbatzako karrerako funtzionarioa.
- 3) Iragarkia ALHAOn argitaratzea eta kontratatzailearen profilean publikitatea ematea.

Aldeko 5 (bost) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

6 (sei) abstentzio: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

6.2. 2020 ekitaldiko aurrekontu orokorraren likidazioa eta kreditu-txertaketaren espedientea

Idazkari jaunak, alkate jaunak hala aginduta, 2020 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren kontu eman du, eta adierazi du Oyón-Oiongo Udalak aurrekontu-ekitaldi berria positiboan itxi duela. 2020 ekitaldiak gastuaren eta egonkortasunaren araua betetzen du; erakundearen aurrezki korrante garbia 733.399,24 euro dira (positiboa).

Aurrezki garbia sarreraren egoeraren likidatutako eskubideen eta gastuen egoeraren aitortutako betebeharren diferentzia da. Zenbatekoan murriztuta dute diru-itzuli gabe dauden maileguen amortizazioaren urteko kuota teorikoak eta proiektatuta daudenak. Hala badagokio, 0 (zero) euro dira.

Zorpetzearen emaitzak ere positiboak dira, eta finantza-osasunari buruz hitz egitea ahalbidetzen digu.

Hala, sarrera arrunten arteko zorpetze ratioaren emaitza % 0 da. Arabako Foru Ogasunak arautzen dituen 41/89 Foru Arauaren 53. artikulua arabera, neurri horren legeko muga % 110 da aurreko likidazioaren sarrera arrunten gainean.

2020ko aurrekontuaren emaitza 609.427,23 euro da. Aurrekontuaren emaitza ekitaldian aitortutako eskubide guztien eta epe horretan aitortutako betebeharren diferentzia da. Aurrekontuaren emaitza epe laburrean tokiko administrazioen finantza-gaitasunaren edo -kaudimenaren lehenengo adierazlea da. Ondorioz, tokiko erakundearen ekitaldiaren superabita/defizita islatzen ditu.

Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina 1.151.163,42 euro dira eta diru horren zati handi bat 2021ean finantza-inbertsio jasagarriak egiteko erabiliko da eta kreditu-txertaketak finantzatzeko.

Aurrekontua likidatu baino lehenago eta eraginkortasun tresnekin, Udalak likidazioari lotutako saldo-arazketa onetsi du. Gerora aldatzeko edo bajaran emateko aurrekontuetakoak ez diren kontuen saldo-arazketa diruzaintzaren proposamena den txostenaren baldintzetan argudiatzen da. Araztu behar diren aurrekontuetakoak ez diren kontzeptuen saldoak, eta beraz, bajaran emateko direnak 3.865,40 euro (bertan behera utzitakoak) eta 195.398,05 (araztutakoak) dira. Eta aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren kobranta zaila edo zalantzakoa izan dutenen analisira gehitzen da.

Likidazioa onesten denean, 2021 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorrera (egun aurreko ekitalditik luzatutakoa da) gehitu behar dira 2020 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorreko gastuen egoeraren

barruan dauden ordainketa-kredituak; espedientearekin lotutakoak eta ez dutenak betebeharrak betetzeko eraginik izango. Honako hauek dira: 1 zenbakidun kreditu aldaketaren espedientea, kreditu-txertaketak, 2021eko aurrekontua.

Arau orokorrak urteroko printzipioarekin bat etorrira ezartzen du kreditu-geldikinak ekitaldi bakoitza ixten denean baliogabetuko direla, hala ez dira hurrengo ekitaldiko aurrekontuan txertatuko. Hala ere, arau orokor horren salbuespena da kreditu-geldikinetan txertatzea.

Hala, baliogabetu gabeko kreditu-geldikinak hurrengo ekitaldiko aurrekontura gehitu daitezke, honako kasu hauetan, betiere finantza-baliabide nahikoak badaude:

- a. Ekitaldiaren azken hiruhilekoan eman edo baimendu diren ezohiko kredituak, kreditu gehigarriak eta kredituen transferentziak.
- b. Aurreko ekitaldietan hartutako gastu-konpromisoak babesten dituzten kredituak. Aukera hori aurreikusita dago erakundeek hirugarrenekin dituzten konpromisoak babesteko; emandako ondasun, hornidura edo zerbitzua jasotzeko zain.
- c. Kredituak kapital-eragiketengatik.
- d. Eragindako eskubideen bilketa eraginkorraren arabera baimendutako kredituak.

Atxikitzea hurrengo ekitaldiko edozein unetan ados daiteke, baina horretarako finantza-baliabide nahikoek egon behar dute. Honako hauek dira baldintzak:

1. Diruzaintza-geldikin likidoak, hau da, izaera positiboko gastu orokorretarako diruzaintzaren geldikinerako erabili gabe dagoen saldoa.
2. Aurrekontu arruntean aurreikusitako guztizkoen inguruan bildutako sarrera berriak edo handiagoak.
3. Lotutako finantzazioa duten gastuetarako geldikina gehitzen bada, finantza-baliabide nahikoak izango dira gehiegizko finantzazioa eta gehitu nahi diren geldikinei lotutako ekarpen-konpromiso irmoak.

- Diruzaintza-geldikina (lotutako finantzazioa): 119.092,90

- Diruzaintza-geldikina (Finantzazio Orokorra): 230.620,27

230.620,27 euroak gastu orokorretarako geldikinari kentzen zaizkio: 1.151.163,42-230.620,27= 920.543,15. Geldikinetik gelditzen diren 920.543,15 euroetatik, alkatetzaren asmoa da, honako hauetan inbertsioak egitea:

- 313.685,32 euro Pozo Fonsoko Mendebaldea urbanizatzeko.
- 108.850,15 euro Udalaguntza programa 2021 eskolan esku hartzeko.
- 172.974,18 euro “Oiongo Zinema egokitzea” inbertsioa; 294.056,61 euro izango direla kalkulatu da. Honako xehatze honekin: 172.974,18 (2021) + 121.081,88 (2022). Hala badagokio, kontratazioa 2021eko abenduaren 31 baino lehen egin daiteke.

Guztira 595.510,50 euro (inbertsioetarako proposamena).

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

6.3. 2021 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorra hasiera batean onestea.

Alkate jn.: 2021erako aurrekontuen proiektuari osoko zuzenketa bat aurkeztu dio Daniel Salvador zinegotzi ez-atxikiak eta beste bat talde Popularrak, epez kanpo dago. Daniel Salvador zinegotzi ez-atxikiaren zuzenketa ez dator bat 2019ko azaroaren 13ko erabakiarekin, aurrekontua izapidetzeari buruzkoarekin, eta ezin da bozkatu.

Beloqui Unzurrunzaga jn. (PP): Egungo egoerak ez du ahalbidetzen gehiago atzeratzea, ezta aurrekontuak itzultzea ere. Aurrekontuak premiaz onestea nahi dugu.

Gamarra López Brea jn.: Ederto iruditzen zaigu parte-hartzea, baina ordezkaritza-mandatuaren irizpidearen arabera jardungo dugu.

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Interesgarria litzateke denbora gehiago izatea. Eta aurrekontu parte-hartzaileentzako partida bat sortzea. Ez dugu ulertzen osoko zuzenketa eta

abstenitu egingo gara. Epeak eta izapidetzea dagoeneko 2019tik erabakita daude. Legealdi honetan kaleak garbitzeko eta plazak eta lorategiak mantentzeko zerbitzuak udalekotzea proposatu dugu; eskuineko alderdi guztien kontrako botoak jaso ditugu, PNV, PSE eta PP eta gainera zinegotzi ez-atxikiaren abstentzioa. Lanpostuak sortzen lagundu ahal izan denean ez dute nahi izan, baina orain osasun-krisian babesten dira demagogia egiteko. Aurkeztu dituzten aurrekontuetan beharrezkoak ez diren obrak (Pozo Fonso kalea, Plaza Nagusia handiagotzea) eta zerbitzuak kanpora ateratzea daude. Egia da, pandemiarekin jendeak gaizki pasatzen duela. Baina pandemian bete-betean egonda 2018an baino langabezia gutxiago dago. Prest gaude lan-mahai batean gizarte-eragileekin partida bat eratzea ebaluatzeko eta gaizki pasatzen diren herritarrentzako neurri ekonomikoak aplikatzeko.

Salvador Adán jn. (zinegotzi ez-atxikia): Aurrekontuen aurka bozkatuko dut, parte-hartzaileak izan behar dutela uste dudalako. EAJ-PNVren eta bere “makulu” PSEren nahi-gabezia. Iaz ez zen euro bat ere bideratu herritarrei laguntzeko, nahiz eta, esaterako, ez ziren gastatu jaietako partidak. Aurten ere ez, eta badago dirua eraikinak erosteko. Gustatuko litzaiguke partida horiek bideratzea inor atzean geratu ez dadin, baina turismo-bulego bat egiteko ere, udal-enpresa bat... lorezaintza, igerilekuak, elektrizitatea etab. ez ditzaten enpresa pribatuek egin. Eta eskatuko dugu gaizki pasatzen ari diren kolektiboentzat uren eta zaborren tasa, TMIZ kentzea. Kontsumoa babesteko neurriak, familientzako euroen babes-plana. Udalak geldikina gasta dezala autokarabanen aparkalekua handiagotzen, zerbitzuen udal-enpresa eratzen, etab...

Inclán Gil jn. (PP): Eztabaidatzen galtzen den aukera dela uste dut. Gu abstenitu egingo gara; inbertsioak daude, baina pertsonak atzean geratzen ari dira. 2020 eta 2021eko langabezia-datuak ABEEEk eraginda daude. Gure asmoa diru-poltsa da. Xedapen ona zela uste genuen. Ez dugu Udalaren jardura eten nahi, beraz, abstenitu egingo gara.

Gamarra López Brea jn. (PSE-EE-PSOE): Aurrekontuen alde bozkatuko dugu. Ulertzen ditut alderdien arrazoiak, jendearekin hurbilekoak izatea. Aurrekontutik ez zait gustatzen kirolean eta kulturen duen inplikazio txikia. Eraikinak asmo argiarekin erosten direla dakit. Labur esanda, aurrekontuak babestuko ditut kultura eta kiroleko salbuespenekin.

Alkate jn.: Aurrekontuaren lerroei dagokienez, aurrekontuaren alkatetzaren memorian jasotakoa diot, baina ez dizuet irakurriko denok irakurri duzuela uste dudalako. Edonola ere, aktan jasota gera dadin eskatzen dut. Alderdi Popularraren zuzenketa ezin dugu eztabaidatu. Bidezkoak bagara, antzeko egoeretan Salvador jaunaren proposamenak baztertu dira epez kanpo aurkeztu direlako.

Aurrekariak

1. 2021 ekitaldiko Ohiko Aurrekontu Orokorren proiektua zinegotzi guztiei helarazi zitzaizen 2021eko otsailaren 7an.
2. Zuzenketak aurkezteko epea eman zen; otsailaren 17an amaitu zen.
3. Horretarako emandako epean zuzenketa partzial bat aurkeztu da (epez kanpo) eta osoko zuzenketa bat.
4. Aurrekontua izapidetzeko 2019ko azaroaren 13ko erabakia aintzat hartu da.
5. Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Arauaren 6.-12., 14., 15. eta 16. artikulua aplikatuko dira.
6. Halaber, 7/85 Legearen 47.1 artikulua aplikatuko da: aurrekontuaren behin-behineko onepenak ez du gehiago osoa behar.
7. Kontuhartzaitzako txostena dago.
8. 2021eko martxoaren 3an Ekonomiako Informazio Batzordearen bilkuran egindako proposamena.

Hau erabaki da:

1. Hasiera batean onestea 2021 ekitaldiaren ohiko aurrekontu orokorra.
2. Aurrekontua betearazteko udal-araua onestea.
3. Lanpostu Zerrenda onestea.

4. Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Arauan jasotzen diren epeetan espedientea jendaurrean jartzea.
5. Onespen erabaki hori behin betikotzat hartzea, alegaziorik aurkeztu ez bada. Alegaziorik badago, 1 (bat) hileko epean ebatzea.
6. Behin betiko argitaratzea eta Arabako Foru Aldundiari espedientearen kontu ematea.

Aldeko 6 (sei) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Kontrako 3 (hiru) boto: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia). Abstentzioak 2 (bi): Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP)

Aurrekontuaren alkatetzaren memoria atxiki da:

Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Arauaren 6. artikuluan jasotzen du aurrekontuaren proiektuaren gainerako dokumentazioarekin batera aurkeztu behar dela aurreko ekitaldiaren aurrekontuaren aldaketa eta berrikuntzak aztertzen dituen aurrekontu orokorraren azalpen-memoria eta aurrekontua betearazteko udal arauan jasotako neurriak ere bai.

3/2004 Foru Arauaren 14. artikulua 1. atalean honako hau jasotzen da: aurrekontua haren buruak prestatuko du; horretarako, hurrengo ekitaldirako aurrekontua egiteko behar diren gidalerro ekonomikoak eman ahal ditu.

Udal honen kasuan aurrekontu bakarra erakundearena da, ez baitago mendekoa den erakunde autonomorik, enpresa-erakunde publikorik ez udal-sozietate publikorik.

2021 ekitaldiko aurrekontua aurreko ekitaldiaren aurrekontuaren betetzearen arabera proiektatu da eta arreta jarri zaio COVID-19ak sortutako ezohiko egoera historikoari.

Aurrekontuaren proiektuaren nahia da pandemiagatik ziurtasun-faltaren uneko beharrezanez erantzutea eta enplegua sustatzeko konpromisoa gauzatzea. Halaber, zerbitzu publikoak mantentzea betiere udalerraren baliabide- eta dimentsio-gaitasuna aintzat hartuta.

Aurrekontu-luzapena

2020ko abenduaren 30eko alkatetzaren ebazpenaren bidez erabaki zen 2020 ekitaldiko aurrekontua 2021era luzatzea. Aurrekontu-luzapena honako hauen arabera da:

Ezarritako araudiaren arabera luzapenerako ziren kredituak amaitutako ekonomia-ekitaldiaren azken egunean onetsitako zenbatekoak izango dira, hots, behin ekitaldi horretan baimendutako transferentziak, handiagotzeak eta gainerako aldaketak zenbatzen direnean.

Inolaz ere, ez dira luzagarriak izango zerbitzuetara bideratutakoak, edo aurreko ekitaldian amaitu behar duten programa-multzoak, edo kredituekin edo beste sarrerak jakinekin finantzatuta daudenak edo ekitaldi horretan soilik jasoko liratekeenak.

Konpromiso-kredituak luzatutako aurrekontuan modu automatikoan sartuko dira.

Hala, luzapenak honako xehetasunak ditu:

Gastuen egoera

	Operazio arruntak	
I.	Langileen gastuak	854.118,14
II.	Ondasun arruntak/zerbitzuak erostea	1.677.382,77
III.	Finantza-gastuak	4.000,00
IV.	Transferentzia arruntak	238.400,00
V.		
VI.		

VII.		
VIII.	Finantza aktiboak	3.000,00
Guztira:		2.776.900,91

Sarrereren egoera

	Operazio arruntak	
I.	Zerga zuzenak	1.040.965,00
II.	Zeharkako zergak	60.000,00
III.	Tasak eta bestelako sarrerak	237.305,00
IV.	Transferentzia arruntak	1.959.540,00
V.	Ondare-sarrerak	7.400,00
VI.		
VII.		
VIII.		
IX.		
Guztira:		3.305.210,00

Luzapena amaitzen denean, behin-betiko aurrekontuak onetsiko dira urtarrilaren 1etik aurrera eta bertan dauden kredituak hasierako kreditu gisa hartuko dira. Aurrekontu-luzapena 2021eko otsailaren 3ko ALHAOn argitaratuko da.

Formakuntza eta enplegua sustatzeko neurriak.

Alkatearen eta bere taldearen lehentasuna langabeziaren kontra borrokatzea da. Eta lehentasunaren adierazlea da udalerriaren erregistratutako langabezia-indizea, ehuneko 17 inguru.

Horretarako, joan den ekitalditik aktibatuta dago Arabako Errioxako lan-talde espezifikoa; bertan udal honek, Arabako Errioxako Kuadrillak, Lanbidek eta Foru Aldundiak parte hartzen dute.

Formakuntza enplegua lortzeko tresnarik eraginkorrena dela uste dugu. Enplegurako formakuntza Oionen errotutako enpresen beharrian espezifikoetara bideratu behar da. Hala enplegua sor dezaketen enpresekin harremana daukagu, haien beharrian eta eskariak ezagutzeko, eta denon artean norantza berean lan egin ahal izateko.

Hori dela eta, Fondo Formación Euskadi SLLri profesionaltasun-ziurtagiriak eta Lanbideren tituluen homologazioak banatzeko Edificio Azul lagako zaio, Lanerako Lanbide Heziketako Zentrorako bideratutako solairuetan (partekatutako erabilera duen beheko solairua eta erdisotoko solairua erabilera eskusiboa).

Aurrekontuan ez daude jasota formakuntza eta enplegua sustatzeko aurrekontu-partida espezifikoa, dataren egunean gai horren inguruko aurrekontu-konpromisorik hartzea ezinezkoa izan bada beste Administrazioen partetik (AgdE, EJ-GV, AFA...).

Dena dela, aurreko ekitaldian hainbat enplegu-plan jarri dira martxan eta lan-merkatura gutxienez 19 langile sartu dira aldi baterako eta lanaldi erdiko kontratuarekin.

Arabako Errioxako enplegu-orientaziorako zentroa.

Gure asmoa da Arabako Errioxako Enplegu Zentroarekin konpromisoa mantentzea, Kuadrillarekin erakundearen lankidetzan badago eta administrazioen laguntzak badaude. Udalaren eta Arabako Errioxako Kuadrillaren arteko lankidetzaren ekimenaren emaitza da, 2015ean jarri zen abian eta Udaletxe zaharreko bulegoetan egiten da.

Enplegu-orientaziorako zentroa gune fisiko egonkorra da. Administrazio honek enplegu-eskatzaileen eta norbere kontsulta-tresnak dituzten erabiltzaileen esku jarri du enplegu-bilaketa aktiboa egiteko, eta hori errazten duen tresnetan murgiltzeko eta horiek erabiltzeko ibilbideetan orientatzaile baten laguntza dute. Udalak eraikina mantentzeko gastuak hartzeko

konpromisoa du. Aurrekontu-partida: 920.211017.

Giza baliabideak – I. Kapituluak, Langileen gastuak

Udalhitz betetzea

Administrazio honek 2020ko azaroaren 11ko bilkuran erabaki zuen Oyón-Oiongo Udala Udalhitz erabaki arautzailera atxikitzea, gaur arte alderdiek erabakitako eguneratze guztiekin; administrazio honetan zerbitzua ematen duten enplegatu publikoekin harremanen arau-esparru gisa erabiltzen da. Udalhitz 2008-2010 erabakiaren jatorrizko testua 2008ko abenduaren 2ko ALHAOn jaso zen.

I. Kapituluen zenbatekoa 600.065,00 euro dira. Antzinasun-kontzeptuagatik ordainketak doitu dira. Kapitulua horri buruzko xehetasunak langileen, LZ eta langile-aurrekontuaren eranskinean zehazten dira.

AG/ADIN/IT/C1/16/222/2 lanpostu hutsaren aurrekontu-zuzkidura ezarri da, aldi baterako administrazio langileen beharrezkoen prozesua garatu da.

Langileen gastuetara bideratutako gastu-kredituak aurreikusi dira, 2021erako ordainketen arabera. Ordainketak 2021 ordainketa-areagotzei buruzko EUDELen gomendioarekin bat etorrira areagotu dira. 2021eko urtarrilaren 15eko alkatetzaren ebazpenaren bidez eta 2021eko Aurrekontu Orokorren Legearekin (BOEn argitaratuta 2020ko abenduaren 31n, 18. artikulua) eta 2021eko urtarrilaren EUDELen gomendio-zirkularrarekin bat etorrira. Erabaki horren kontu eman zen langile publikoen baldintzen negoziazio-mahaiaren abenduaren 23ko bilkuran.

Administrazio honek ez du enplegu-planik, giza baliabidek arrazionalizatzeko programarik, ezta giza baliabideak antolatzeke planik ere (EPOE 69. artikulua) aipatutako ebazpen arautzaile horren 95. artikuluan jasotakoaren arabera. Hala ere, langileetan ez dago erretirorik aurreikusita.

Lanpostu-zerrenda

Udalbatzak 2021eko urtarrilaren 20an LB/BIBL/TE/C1/16/202/1 lanpostuari buruz (liburutegiko arduraduna) Lanpostu Zerrendaren aldaketa onetsi zuen. Ez dago aurreikusita funtzionario-lotura eta lan-lotura duten langileen erretirorik.

Hizkuntza-eskakizunen derrigortasunaren araudi orokorra betetzeko salbuespena

Planifikazioaren epea hasi zenean langile publiko guztiek 45 urte baino gehiago zituzten, Obra eta Zerbitzu arduradunak eta Diruzaintza Kontuhartzailetza administrariak izan ezik. Euskal Autonomia Elkartearen herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuaren 42. artikuluan honakoa jasotzen da: Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 97.3 atalean ezarritakoaren arabera, ondorengo hauek ez dute hizkuntza eskakizunen derrigortasun-araudi orokorra bete beharrik izango, euren lanpostuei dagokienez: Plangintzaldietako bakoitza hasterakoan 45 urtetik gora dutenek, interesatuak eurak aurretiaz ados egonez gero.

Giza baliabideei buruzko informazio gehiago LZn eta langile-aurrekontuan kontsulta daiteke.

Alkatetzarako arduraldi partzialeko eta 3. alkateordetza-araudia

2019ko uztailaren 8ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez ezarri zen alkatearen arduraldi minimoko eta hirugarren alkateordetzaren araudia. Arduraldia honako hau da: herritarrei zuzenean arreta bermatzea, enpresei arreta ematea eta beste administrazio batzuekin harremana izatea, bai Oyón-Oionen, bai Vitoria-Gasteizen. Aurrekontuetan izango duen eragina ikusteko ikus 920 – 100.000 y 920 – 160.000 aplikazioak. Jendaurrean jarri zen iragarkia Udaleko iragarki-taulan eta webgunean, eta ALHAOn (2019ko uztaiaren 24ko 85. zk.) 02369 iragarkia eta herriko egunkarian argitaratuta.

Zerbitzu publikoen kudeaketa

7/1985 Legearen arabera (26.1 artikulua) Udalek eman behar dituzten zerbitzu guztietatik, Oyón-Oiongo Udalak honako hauek ematen ditu:

- Argiteria publikoa Oyón-Oiongo Udalak 2019 ekitaldian esleitu dizkio Electro Rioja Alavesa SLri eta Instaladora Riojana de Electricidad y Telecomunicacióni argiteria publikoaren hiruhileko mantentze-kontratuak.
- Hilerria (Oyón-Oiongo nukleorako, Barriobusto eta Labraza kontzejuetan zerbitzua dagozkien Administrazio Batzarrek ematen dute).
- Hondakinen bilketa Oyón-Oiongo Udalak 2016ko uztailaren 13ko bilkuran erabaki zuen onestea hirigintzako laguntza teknikoko eta hondakinen kudeaketa integraleko zerbitzu-ematea Arabako Errioxako Kuadrillak egin behar zuela. Eta adieraztea Oyón-Oiongo Udalen nahia zerbitzua jasotzeko, eta batez ere, adostasuna adierazteko zerbitzu-emateen tokiei, orduerik eta egutegiari dagokienez, eta gogoraraztea Oyón-Oiongo Udala kontratatzeko prestazio horien hirugarren hartzailea dela eta zerbitzuaren administrazio titularrari ordainduko diola jasotako prestazioengatik ezarritako prezioa. Inolaz ere, Oyón-Oiongo Udalak ez du bere gain hartzen kontratatzen duen administrazioaren baldintza. Oyón-Oiongo Udalak ez du kontratuen prestatzean eta esleipenean parte hartzen, ezta kontratua betetzen edo iraungitzen dela bermatzen denean ere.
- Kale-garriketa Oyón-Oiongo Udalak 2020ko maiatzaren 20ko bilkuran erabaki zuen kale-garriketako zerbitzuaren kontratua iraungitzea. Esleipen-erakundea FOCCSA zen eta iraungitze-data 2021eko uztailaren 31 zen.
- Edateko uraren etxeko hornidura, estolderia Oyón-Oiongo Udalak Arabako Errioxako beste udal batzuekin batera Arabako Errioxako Urkidetza eratu zuen (ikus ALHAO 1999ko apirilaren 14a). Urkidetza (Estatutuen 1. artikulua) bere kompetentziako azpiegiturak eta zerbitzuak elkarte gisa ezartzeko eta ustiatzeko ezarri zen. Urkideztaren helburuak dira oinarritzeko sareetan ur- eta saneamendu-hornikuntzako azpiegiturak ezartzea eta ustiatzea eta dagozkien zerbitzuak ematea; baldintza egokiek eta indarreko araudiaren arabera. (Estatutuen 6.1 artikulua).

Udal-igerilekuen zerbitzuak eta beste kirol zerbitzu batzuk.

Indarreko legedian zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuari buruzko erreferentziak eginda daudela ulertuko da Lege hori zerbitzuak emateko kontratuan indarrean sartzen denean; Lege horretan kontratu horretarako araututakoarekin bat datozen neurrian.

Kontratu bat zerbitzuak ematen dituen kontratu gisa kalifikatzeko Administrazioak emakidadunari egindako eragiketa-arriskuaren transferentziak egon behar du. Arau-kontzeptua 14. artikuluan jasotzen da, honako hau dio: Kasu honetan irizten zaio emakidadunak eragiketa-arrisku bat hartzen duela bere gain: Emakidadunak bermatuta ez daukanean, funtzionamenduko baldintza normaletan, egindako inbertsioak berreskuratuko dituenik edo emakidaren xede diren obren ustiapenaren ondorioz izan dituen kostuak estaliko dituenik. Emakidadunak hartutako arriskuak merkatuko ziurgabetasunen aurreko esposizio erreal bat ekarri beharko du berekin, eta emakidadunak izan dezakeen galera zenbatetsi oro galera nominal hutsa ez izatea, baizik eta kontuan hartzeko modukoa.

- Aintzat hartu behar da La Espina kalean udal-igerilekuen zerbitzuen eta beste kirol zerbitzu batzuen zeharkako kudeaketaren bidez ematen dela. Kontratista: UTE Oiondeportivo (BPX Agua y Jardín Enpresen Aldi Baterako Batasuna, 18/1982 Legea).

2020ko maiatzaren 20ko bilkuran udalbatzak erabaki zuen Udalak zabor-bilketako eta lorezaintzako zerbitzuen esleipen berria baino lehenago, horien erreskatearen azterketa ekonomikoa eta soziala egitea; aintzat hartuko ditu ondore ekonomikoak eta egun zerbitzua ematen duten langileenak ere. Azterketaren datuekin kontratatzeko eredu posibleak aztertuko dira eta Udalarentzako erabakirik egokiena hartuko da. Honako hauek dira azterketa ekonomikoaren ondorioak:

Aintzat hartu da enpresek emandako informazioaren arabera aintzat hartzeko aldagaiak, hasiera batean zeharkako kudeaketa aukerarik merkeena da kudeaketa-kostuei dagokienez: kale-garbiketaren urteko kostua 127.862,18 euro eta lorategiak mantentzeko zerbitzurako 128.012,54 euro. Zuzeneko kudeaketan honakoak dira kostuak hurrenez hurren: 149.451,00 euro eta 141.034,41 euro.

2021eko otsailaren 10eko bilkuran Udalbatzak EH Bildu Oionen udal-igerilekuen kudeaketari buruzko mozioa ezestea erabaki zuen. Hala, uda-igerilekuen zerbitzua eta beste kirol batzuen zerbitzuak zeharkako kudeaketa izaten jarraituko dute.

2020ko urriaren 14ko bilkuran Udalbatzak onetsi zuen INDESA 2010 SLri udal-espazioak garbitzeko, mantentzeko eta gordetzeko zerbitzua emateko mandatu. Mandatuaren prezioa 156.426,32 euro dira eta hileroko zenbateko osoaren hamabirena fakturatuko da. Kontratuaren iraupena 1 (bat) urtekoa izango da, 2020ko azaroaren 1etik 2021eko urriaren 31ra arte. Mandatua luza daiteke. Luzapena egiteko alderdi biek hala adierazi behar dute hitzarmena amaitu baino 2 (bi) hilabete lehenago.

Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzak Eskola Publikoa mantentzea (1. zikloa)
Udalaren konpetentzia da Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko legediaren baldintzen arabera, eskola publikoak gordetzea, mantentzea eta zaintzea.

Udal-aurrekontuak Eskola Publikoa mantentzeko eta horrek funtziona dezan gastuetara 203.505,00 euro bideratzen ditu (2019ko aurrekontuan 184.718,00 euro bideratu ziren). Horra hor:

- Atezaina (Gizarte Segurantzak eta Ordainketak): 37.105,00 euro.
- Mantentze-gastuak (garbiketa-gastuak ere bai, INDESA 2010 SLrekin dagoen hitzarmenaren arabera: 105.000,00 euro.
- Ura, gas naturala, elektrizitatea eta erregaia: 39.400,00 euro.
- Gastu gehigarriak, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako garbiketa, COVID-19ari aurre egiteko prebentzio protokoloetan eskatutako neurriak aplikatzeko: 22.000,00 euro.

Udalak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailetik 34.700,00 euro jasotzen ditu DBHko gelak mantentzeko. Beste udalerrri batzuen aurreikusitako ekarpena, Oiongo eskola publikoan matrikulatuta dauden umeak eta mantentze horretan parte hartzera behartuta daudenak ere, 12.700,00 euro dira.

Konponketa-planerako Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Udalaguntza 2020 programan laguntza eskatu da; gaur-gaurkoz erabaki gabe dago.

Nemo Haurreskola mantentzea

Aurrekontu hori Nemo Haurreskola haurrentzako eskola mantentzera bideratzen da (gehienbat erregaia, energia elektrikoa eta mantentze-lanak): 35.000 euro. (323 programaren partidak).

San Bizente ikastolarekin hitzarmena

Oyón-Oiongo Udalak 2019ko maiatzaren 21eko bilkuran erabaki zuen alderdi bien adostasunez 2000ko martxoaren 31ko hitzarmena ebatzea. Urte anitzeko dirulaguntza izendun zuzenaren hitzarmen arautzaile berria sinatzea hezkuntza kontzertuaren moduluak finantzatzen ez dituen mantentze-gastuak finantzatzeko. Hitzarmen horren iraupena 2019ko urriaren 1etik 2023ko urriaren 1era artekoa da.

Gizartean esku hartzeko programak eta planak

Gizartean esku hartzeko programak eta planak aplikazio espezifikotik zehazten dira:

- Berdintasun Plana 8.000 euro
- Genero-indarkeriaren aurkako programaren zenbatekoa: 2.600,00 euro (Estatuaren laguntza 1.300,00 euro baino gutxiago da, Udalak zenbateko bera emango du.
- Kaleko hezkuntza-programa ISEJAO (Intervención SocioEducativa con Jóvenes y Adolescentes en Oyón) 14.952,00 euro
- Kulturarteko bizikidetzak-plana: 11.700,00 euro

Konpromisoa euskararekin

Aurrekontu honetan euskararekin konpromisoa islatzen duten hainbat partida hornitu ditu:

- 335 226015 partida “Euskara sustatzeko bekak”, zenbatekoa 5.000. euro, norgehiagoka gabeko erregimenean laguntza-programa. Laguntza horiek euskara ikasteko finantzaziora bideratuko dira, lan egiteko legezko adina duten pertsonentzako; familia-unitatean sarrera ekonomiko mugatuak izateagatik euskararen ikasketa zailagoa izan daitekeelako.
- 335 227071 partida “Sustapena, euskara itzulpena”, zenbatekoa 6.000 euro, Udalak ekoizten dituen testuak itzultzeko kontratua, hala nola bilkuren aktak, bandoak, iragarkiak eta udal-webgunean txertatzeko bestelako edukiak.

Entretanto entretente Bitartean Jolaseanekin hitzarmena musika-eskolarako

Aurrekontuan 5.000,00 euroko izendatu dira, 334 481003 partida. Dirulaguntza izendun zuzena da eta Oyón-Oionen musika eskola bat sortzera eta sustatzera bideratuta dago eta Entretanto entretente Bitartean Jolasean (EEBJ) elkartearekin sinatutako hitzarmenaren bidez araututa dago. Gainera, Udalak udaletxe zaharraren lehengo solairuaren erabilera laga dio elkarteari musika-eskolaren jardura gara dezan eta lagatako ondasunaren uraren, energia elektrikoaren eta mantentzearen kontsumoaren gastuak bere gain hartu ditu. EEBJk garbiketako ohiko gastua hartuko du bere gain. Musika-eskolak ez du inolako betebeharririk hartuko mantentzeko-gastuak ordaintzeko, aipatutakoak izan ezik.

Ureztatzeko uraren hornikuntza-zerbitzua

Udalbatzak 2020ko maiatzaren 20ko bilkuran erabaki zuen edateko ez den uraren – gune berde pribatuak ureztatzeko uraren hornikuntzaren zerbitzua emateari uztea. Edateko ez den uraren – gune berde pribatuak ureztatzeko uraren hornikuntza ez da derrigorrezko zerbitzua ez baita edateko ura, hots, ez da 7/1985 Legearen 25. artikuluekin lotutako berezko konpetentzia; baizik eta konpetentzia inpropioa da eta hori bere gai hartzeak /1985 Legearen 7.4 artikuluko baldintzak betetzea ekarriko luke. Ureztatzeko ura, edateko ez den ura, gune berde pribatuetara hornitzea eta eta berean erabiltzaile berberei edateko ura hornitzeak arriskuak dakartza, esaterako, edateko uraren sarean zebra-muskuiluaren inbasioa eta ureztatzeko ura edateagatik intoxikatzeak aukera. Kalte horiek ondare-erantzukizunagatik erreklamazioak ekar ditzake eta Udalak aurre egin beharko lieke.

Landa-bideak mantentzea

Kontzeptu horretarako aurreikusitako zenbateko osoa honako hau da:

G: 454.210.001; zenbatekoa 50.000,00 euro.

Finantzazioa: baliabide orokorrak. (landako OHZren bilketan aurreikusitako antzeko kopurua bideratu da)11202; zenbatekoa 51.368,00 euro

Talde honek landa-bideak mantentzeko, landa OHZren bilketagatik aurreikusitako antzeko kopurua bideratzeko konpromisoa hartzen du.

Ez dago laguntza aurreikuspenik AFA edo GV-EJren partetik lan horiek finantzatzeko.

Halaber, bideetatik sasiak kentzeko partida espezifikoa zehaztu da: 454.210.001 partida, hornidura 16.000,00 euro.

Dirulaguntzak

Izenpeko horrekin 2019-2021 dirulaguntzen plan estrategikoaren arabera jardungo dugu, 01671 iragarkiaren 2019ko ekainaren 10eko ALHAOren 67. zenbakian onetsi eta osorik argitaratu zen, baita transferentzien eta dirulaguntzen, korronteen eta kapitalaren eranskinarekin batera.

Inbertsio-plana

Atal horrek aurrekontuan eranskin propioa du. Inbertsio horiek aurtun egikaritu nahi dira eta nahi horrek 21 urteko aurrekontua behingoz onestera eramaten gaitu, 3/2004 Foru Arauaren 32. artikuluan jasotakoaren arabera, inbertsioen kreditu horiek.

Gastuen egoera Kapituluka osatzen da. Horra hor:

<u>Gastuen egoera</u>		<u>Operazio arruntak</u>	
I.	Langileen gastuak		600.065,00
II.	Ondasun arruntak/zerbitzuak erostea		1.450.932,00
III.	Finantza-gastuak		5.000,00
IV.	Transferentzia arruntak		394.690,00
		<u>Kapital operazioak</u>	
V.	Benetako inbertsioak		751.237,00
VIII Finantza-aktiboak			3.000,00
Total:			3.204.924,00

Zerga, tasa eta prezio publikoak eguneratzea

Proiektu horretan jasotako zerga, tasa eta prezio publikoengatik sarrera arruntan aurreikuspenak 2021erako Zerga Ordenantzetan oinarritzen dira. 2021erako ordenantza fiskalak aldatzeak honako hauei eragiten die:

- 4. ordenantza, eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga
- 9. ordenantza, tasa hiri-hondakin solidoak (HHS) biltzeko zerbitzu publikoa emateagatik.
- 11. ordenantza, tasa administrazio-dokumentuak igortzeagatik
- 13. ordenantza, tasa hirigintza-lizentziengatik.

Ordenantzen aldaketak, HHS jasotzeko tasa izan ezik, ez dio eragiten sarreraren aurrekontua egiteari. Kontzeptua 31201: Etxeko HHS jasotzea eta kanona 128.133 euro. Hiriko OHZren 518.890 euroko aurreikuspena dago.

Konpromiso-kredituak

Konpromiso-kredituen egoera urte anitzeko izaera duten gastuek osatzen dute; ekitaldian zehar konpromisoa har daiteke eta horiek onestek ezarritako baldintzetan horiek formalizatzea ekarriko du.

Atal horrek eranskin propioa du igorri dudan aurrekontuan.

Gogoeta orokorra

Aurreko ekitaldiko gastu eraginkorraren arabera egiten diren aurrekontuak dira eta ahal den neurrian zerbitzu publikoak mantentzera eta langabeziaren aurka borrokatzera daude bideratuta. Aurrekontua COVID-19 nazioarteko pandemiak sortutako osasun publikoko larrialdi-egoerak baldintzatuta dago. Mundua historiako unerik ezohikoena bizitzen ari da. Osasunaren Mundu Erakundeak joan den 2020ko martxoaren 11n aurkeztu zuen.

Martxoaren 14an alarma-egoera deklaratu zenean gertatutakoa oso azkar joan da eta pandemiaren transmisioak gure ekonomian izandako eraginak, nazionala eta internazionala, berehalako eta neurri eraginkorra hartzeko eskatu du eta eskatuko du horri aurre egiteko. Ezinbestekoa da hausnarketa egitea gastu publikoaren kontrolari buruzko neurriei buruz eta ekonomia-neurriak hiru

ikuspuntutatik aztertzea: covid-19aren kontrako borroka, herritarren babesa eta ekonomia berrindartzea.

Aurrekontu hori udalbatza-agindu honetan egin den bigarrena da, 2019ko ekainaren 15ean hasi dena. Udalaren agintean kudeaketako lau urte igaro ondoren egindako dokumentua da eta 2015-19 aginduko aurrekontuen egikaritzetik hartutako esperientziarekin, hots, 2016, 2017, 2018 eta 2019 ekitaldiak, udal-talde honek egindakoak.

6.4. Daniel Salvadorren mozioa Arabako Errioxako Kuadrillaren izena aldatzeari buruzkoa

Daniel Salvadorren (zinegotzi ez-atxikia) mozioaren kontu eman da, Arabako Errioxako Kuadrillaren izena aldatzeari buruzkoa.

Salvador Adán jn. (zinegotzi ez-atxikia): Ez dut mozioa irakurriko eta ez dut kenduko. Zuzenketarekin ados nago. Eta alkateari eskatu nahiko nioke bere partiduko kideari eskatzeko (Kuadrillako presidentea) Arabako Errioxaren izena defendatzeko, Errioxako Kontseilu Arautzailearen izenean erregistratuta dagoena. Labur esanda, Arabako Errioxaren izena defendatzeko eta nire hautagaitzako kideei ez erasotzeko eskatzen diet.

Gamarra López Brea jn. (PSE-EE-PSOE): Mozioa aurkeztzen badut, irakurri behar dut.

Alkate jaunak EAJ-PNV taldearen zuzenketa irakurri du.

Beloqui Unzurrunzaga jn. (PP): Ez dugu uste Kuadrillaren izen-aldaketa herriaren ekimena izan behar denik.

Alkate jn.: Badakit Kuadrillak denbora zeramala izen-aldaketan lan egiten.

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Ados gaude izen-aldaketarekin eta bi hizkuntzetan izatea eskatzearekin. Baina zuzenketan abstenitu egingo gara, ez dugulako ulertzen Udalari egokitzea.

Bozkatu egin da Arabako Errioxako Kuadrillaren izena aldatzeari buruzko Daniel Salvadorren mozioari EAJ-PNVk egindako zuzenketa. Zuzenketa onesten bada mozioa bertan behera geldituko da eta ez da bozkatuko.

Aldeko 7 (zazpi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Abstentzioak 4 (lau): José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP)

Zuzenketa onetsi da, mozioa bertan behera gelditu da. Onetsitako mozioaren testua transkribatu da:

1.) Mozioak akats larria du: ez dago Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla. Zuk mozioan aipatzen duzun azaroaren 20ko Kuadrillei buruzko 63/1989 Foru Arauaren 4. artikuluan Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrillari buruz hitz egiten da. Eta akatsa euskararik ez jakitean oinarritzen da.

2.) Mozioa egiteko historialariren bati galdetu izan bazenio, jakinaraziko lizuke Kuadrillen izenak historiako jatorria dutela eta ez dela soilik arrazoitzen hiriburuaren izena lehenestean. Hortik datoz honako jatorrizko izen hauek: cuadrilla de Zuya-Zuiako Eskualdea, cuadrilla de Añana Añanako Kuadrilla eta Cuadrilla de Ayala / Aiarako Kuadrilla.

3.) Organo nagusien asmoa ezagutzen dugu, gure kuadrillaren izena egokitzea, udalerrri guztiek hartuko dituen terminoarekin eta Cuadrilla de Rioja Alavesa / Arabako Errioxako Kuadrilla izan behar du.

4.) Arduratzen gaitu partikularren sare sozialetan Rioja Alavesa – Arabar Errioxa izena erabiltzen duten ekimenak, jendea horren jatorriaren inguruan erratzen dute eta horren atzean nor dagoen jakitea, nahiz eta gainerakoei gardentasuna eskatu.

arabarerrioxa.eus idazten badugu, arabar Errioxa irratora, Kuadrillako irratora garamatza. arabarerrioxablog tekileatzen badugu, WordPress.com blogera garamatza, Daniel Salvadorrekin udal-hauteskundeetan hautagaitza partekatu zuen pertsona batek sustatzen du.

Hori dela eta, Daniel Salvador zinegotzi ez-atxikiaren mozioari aldatzeko zuzenketa aurkeztu dio:

1. Osatzen dugun Kuadrillari eskatzea izen-aldaketarako urratsak hastea Cuadrilla de Rioja Alavesa / Arabako Errioxako Kuadrilla izenaren aldaketarako
2. Kuadrillari eskatzea dagozkion lege-neurriak hartzea Arabar Errioxa Rioja Alavesaren erabilera ekiditeko, hori erabiltzeak sareen erabiltzaileak erratu ez ditzan webguneen, blogen, etab... agintea eta titulartasunari dagokionez.

Azken puntua) Galde-eskeak

Villanueva Gutiérrez jn. (EH Bildu Oion): Nafarroa etorbideko 11-13 zenbakietan trafiko-seinaleak aldatzeko eskatzen dugu.

Alkate jn.: Bilkuraren jarrera lasaia eskertu nahi dut. Urkidetza atxikitzeari buruzko alegazioak ez ditugu sartu. Bi alegazio aurkeztu zirela gogorarazten dut: Luis María González Jauregui eta Daniel Salvador Adán (azken hau epez kanpo aurkeztu zen).

Urkidetza asanbleak joan den martxoaren 5ean erabaki zuen merkataritza-sozietatea eratzeari uko egitea eta Arabako Foru Aldundira atxikitako Urkidetza gisa jarraitzea, eta kide guztiek aho batez erabakita asanbleak estatutuak aldatzea erabaki du Urkidetza Aldundiari atxikitzeko. Orduan, estatutuetan ekarpenak egin zituen Udal bakarra gara. Baina sozietate baten kide izatea gehiago baloratu nuen eta nire irizpideak irentsi behar izan nituen. Uste dut denborak arrazoiak eman didala, nahiz eta jendeak uste duen nire alderdiaren erabakietara makurtu nintzela. Ez dakit aukerarik izango dudana nire irizpide-aldaketa defendatzeko; Oiongo biztanleengan pentsatuta egin nuen. Dakizuenetz, prozesu mediko-kirurgikoan sartuko naiz. Ondo ateratzea espero dut.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:45ean (bilkura CCXXIX urteko Ventosoko hogeigarren eguneko 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oion 2021eko martxoaren 26an.

Udaleko idazkaria:

O. E. Alkatetza.